

Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urtarrilak 22 / III. urtea / 57. zenbakia

Eskola Maparen aurrean, desberdinak

LOGSE irakaskuntzaren erreforma indarrean jartzeko tresnarik garrantzitsuena aurkeztu berri du Nafarroako Gobernuak: Eskola Mapa. Bertan daude bilduta irizpideak, sareak, ikasleen trasladoak, eraiki behar diren zentro berriak... Haste-hastetik, baina, kritika nagusi bat jaso du: irizpide ezberdinak izatearena batzuekin edo besteekin.

Lehendabiziz, euskal alorra baz-

tertu dutela diote sindikatu eta alderdi politiko guztiek, UPNk eta PSN-PSOEek ezik, eta egoera are nabarmenagoa da Iruñerrian eta mendialdeko zenbait aldetan.

Bigarren desoreka zentro pribatuekikoa da, mapa soilik sare publikoari baitagokio. Ikastetxe pribatuek, beren kabuz osatu ahal izango dute sarea, ondoren Gobernuaren baimena izateko.

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

A tzo Louis XVI.ari —'Roi de France et de Navarre' titulu ponpoxoa erabili zuen azkenari— lepoa egin ziotenetik berrehun urte bete zirela eta, gogoeta egiteko parada garbia nuen esku artean, astelehenean gure Diputazioeak izan zituen bisitari ilustratuen kontura. Lehenago ere, hain morbo haundia sortarazi duen eta igande gauean telebistak eskaini zigun erreportaia luzea ikustean, Salvador de Madariaga gaztearen errana etorri zitzaidan gogora: «Frantzia eta Ingalaterran ez bezala, hemen ez da sekula erregerik jendaurrean exekutatu. Hori da, noski, gure arazo nagusia».

Baina haundikeria horrek, modu figuratuari baizik ez bada ere, izan lezakeen egia apurra buruan bueltaka narabilela, atentzioa desbideratu didate paretetan itsasirik ikusi ditudan txartelek. Miraz gelditu naiz, harri eta zur. Zer eta Bosniako gatazkaren aipamena ezkerreko erakunde baten aldetik! Munduko errege guztiak brastakoan joan zaizkit gogotik.

Soviet Batasunaren desagerpenak ekarri dion zurztasun ideologikoa gairatu ezinean, mainguka ikusi dugu gure arteko ezkerreko profesionala nazioarteko afereki-ko. Jugoslavia ohiko gertakariak garbi utzi dute hori. Batzuk, Satan amerikarrak parte hartzen ez zuelarik, onak eta gaiztoak ezin bereziz, isiltasuna hautatu dute bada-etzpada. Bertze zenbait, Tito haundiaren oinordekoak eraso-tzailletzat jo ezinik, bertze alde batera begiratu dute. Antimilitaristek, berriz, ez dute sartu nahi izan ustez arrazoirik gabe geldituak ziren ejerzitoei protagonismo berria ematen ahal dien egoeraren eztabaidan.

Ondorioz, Golkoko gerla zela eta duela bi urte karrakara atera gintuzten erakunde gehienek jarri, bederatzi hilabete hauetan Europako Gobernuak Bosniarekiko erakutsi duten uzkurkeria eta zurikeriaren pare izan da.

Orain, emakume musulman bortxatuen alde kontzentratzeko deia luzatu digute Iruñeko feministek. Poztekoa da norbaiti erre-flejoak pizten hasia. Hunkigaria haien bihotz xamurra. Tamalez, bortxatu ez baina beren etxeetatik bota, irendu, zauritu edo, bertzerik gabe, hil egin dituzten gizon-emakumeek esperoan egon beharko dute oraino.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Daniel Merino pintorearen lanak ikusgai daude Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalaren aretoan, García Castañion kalean. Bodegoiak eta konposizioak ikus daitezke uztarrilaren 31a arte. Astegunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara dago zabalik.

Antonio Fava aktore eta maskaregile italiarraren irrizko maskaren erakusketa ikusgai dago Nafarroako Museoan uztarrilaren 27a arte. Nafarroako Antzerki Eskolak Comedia dell'artearen inguruan prestatu dituen ekitaldien barruan dago erakusketa hau, eta bertan 30 maskara desberdinak ikus daitezke, hala nola egiteko erabiltzen diren bozetoak eta zurezko moldeak ere.

Jose Luis Otxoa Beriain eta Alicia Portillo Chocarro artisten erakusketa zabalik dago Iruñean, Lan Kide Aurrezkiak Sarasate Ibilbidean duen aretoan. Bertan, bi artista hauek ehungintzaren artisautzan eta mihisez egindako lanak ikus daitezke. Datorren uztarrilaren 31a arte iraungo du erakusketa honek.

IKASTAROAK




Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren letik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutakoak. Orduetara 9,30etatik

Erregea hil zuten amildegian

Peñalen toki izen ederki ezaguna da Nafarroako historioan, baina gutxi dakite ongi kokatzen. Bertako amildegian Peñalengo Antso erregea hil zen 1076an, bere anaia Ermesenda eta Ramonek amildegitik behera botata. Peñalen, pasadizo honetaz gain, herri garrantzitsua izan zen XI. mende honetan, baina XIV. mendean Villanueva izena hartu eta, azkenean, Funes eta Azkoiengo herriekin bat egin zuen. 1401an, soilik hiru biztanlekin dagoeneko, oraindik portu gisa zebilen, eta Zaragoza, Tortosa eta Valentziako merkantziak jasotzen zituen.

Ibilbide hau El Raso eta amildegitik barna doa, Aragoa eta Arga ibaiek sortutako lurralde zabalaren gainean. Behialako begetazioa arte iberiarrak baziren ere, abeltzantzak eta nekazaritzak zeharo deuseztatu dute. Izan ere, hortik igarotzen zen Ardidide nagusienetako bat. Ibilbidea Azkoienara daraman errepide



detik ateratzen da, eta gero Almendroen bidea hartu behar du, amildegia igotzeko. Hortik, olibondoetatik zehar, errepidetik goaz, pinadiek inguratzen diren bir-

landaketetaraino. Peñalengo amildegira heldu ondoren, La Faceriara joan beharra dago, eta hortik jeitsi, Argaren ertzeraino. Hortik Funeseraino berriro.

13,30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialik 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

Eski alpino ikastaroak antolatzen ditu Nafarroa Kirol Elkarrekin, larunbata eta igandetan, Candanchun. Ikastaro hauek hilabete osoa iraungo dute. Bazki-

deentzat 8.500 pezetan emango dituzte, eta besteentzat, 9.500 pezetatan. Era berean, fondoko eski ikastaroa ere eskaintzen dute, Belagoan, Erronkariko Eski Eskolaren laguntzarekin. Lau ordu eguneko hiru igande jarraietan.

Autoestima, Autodefensa eta Yoga eta Erlaxapen ikastaroak antolatuko ditu Andreak datorren hilabeterako, otsailaren hasieran hasiko baitira. Azken biak goizez eta arratsaldean emango dituzte,

autodefensakoa, berriz, arratsaldez bakarrik. Izena emateko Andreak Navarrerria kaleko 15. zenbakian duen egoitzara jo behar da.

Euskal Dialektologia gaiari buruzko ikastaroa antolatu du IPES elkarteak. Datorren astan hasiko da, asteazkenean, uztarrilak 27, eta astero egun berean izango da, arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara, maiatzaren 19a arte. Ikastaro honek 30

orduko iraupena izango du eta Xabier Pardo Bergarako UNE-Den irakaleak zuzenduko du. Informazioa eta matrikulazioa IPES elkartearen.

Talde Animaziorako Teknikak izeneko ikastaroa pretatu du IPES elkarteak hilabete honen 29 eta 30 egunetarako. Datorren ostiral arratsaldean hasiko da, arratsaldeko 16.00etaik 20.00etara bitartean. Larunbatean, goizeko 10.00etatik ordubietara, eta arratsaldeko 16.00etatik 20.00etara izanen da. Iosu Cabodevilla psikologo klinikoak zuzenduko du.

HITZALDIAK



Peruko egoera aztertuko dute gaur, uztarrilak 22, Lizarrako Julian Romano kontserbatorian izango den mintzaldi batean. 'Peru, mendebaldeko negozioko, miseria eta askatasunerako borroka' titulupean arituko dira Felix Rei Bakaikoa eta Inma Ortega kooperanteak eta diapositibak ere botako dituzte. Mintzaldia arratsaldeko 20.00etan izanen da, eta Lizarrako 500 Urte Batordeak antolatu du.

'Brasil: natura lanean' gaiari buruzko hitzaldia eskainiko du gaur, uztarrilak 22, Nafarroa Kirol Elkarrekin. Mintzaldiaz gain, diapositibak ere botako dituzte, Jose Luis Larreak zuzendurik. Ekitaldia arratsaldeko 20.00etan izanen da, Elkarteak Jarauta kalean duen egoitzan.

ERRAN DUTE



HBkoek ahoa zabaldu orduko egurra jasotzea usadio bihurtu nahi dute zenbaitetek».

Mauricio Olite
HBko parlamentaria

«Espainiako urak espainiarrenak dira, eta beren erregulazioa Estatuko kompetentzia da».

Antonio Aragon
Ebroko Konfederazio Hidraulikoaren presidentea

«Soldadutza egitea denbora, dirua eta osasuna galtzea besterik ez da».

Jesus Mari Salinas
Intsumisioa

«Errege Kopatik kanpo geratu gara, baina Liga txapelketan oraindik ba-

ASTEKO PERTSONAIAK

Julian Retegi



Pilotaria

Pilota munduak eman duen txapelidun handiena pasa den astelehenean kantxara atera zen berriro, hiru hilabete baino gehiago geldirik egon ondoren lesio batengatik. Beldurra zuen Julianek, «oso urduri nago, hasi berria banintz bezala», adierazi zuen aurreko egunetan. Gainera, binakako partiduan, azken urte hauetan duen etsai nagusiaren aurka jokatu behar zuen, Ladis Galarzaren kontra. Azkenean, bikain jokatu zuen, sekulako partidua eginez, eta sei tantutan utzi zuen aurkako bikotea. Garbi erakutsi zuen esku pilotan, oraindik ere, 'erregea' dela.


J. Antonio Villamayor



Arangurengo alkatea

Orain dela egun batzuk ezagutzera eman zuen Nafarroako Entzutegian Arangurengo biztanleen aurkako epaia, abenduan egin baitzen epaiketa. Bailarako hamar lagun zigortu zituzte, zortzi, zazpi eta sei hilabetez kartzela zigorrarekin. Ez da inor kartzelara joango, baina kalte-tuek, abokatuek eta biztanleek, epaiaren aurrean, «dezepzio» handia erakutsi zuten. Villamayor Arangurengo alkatea izan da zigor handiena jaso duena, etengabeko nahasketa publikoaren delitogatik. Arangurengo biztanleek berriro autoinkulpatzea erabaki dute, protesta moduan.

Carlos Bea



Barañaingo zinegotzia

Nafarroako alderdi sozialistari beste arazo bat sortu zaio, Tuteran eta Burlatoko udaletan istilu franko izan ondoren. Barañaingo alkatea den Gregorio Civero eta zenbait zinegotzien artean, tartean Carlos Bea Iruñerriko Mankomunitateko presidentea, arazoak gero eta nabariagoak direla eta, PSNko Exekutibak bertatik kentzeko mehatxua egin die. Burlatan bizi ziren arazoak gehiago oposizioak sortuta izan baziren ere, desadostauna eta barne arazoaren irudi kaskarra ematen ari dira sozialistak, hauteskundearen garaia prestatzen ari den une honetan.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrentzako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

Lizarra

Damutzearentzat bide berriak

JUAN KRUIZ LAKASTA / LIZARRA

Gazteen ganberrismoa zigortzeko bide berri bat ireki du aste honetan Jose Luis Castejon Lizarrako alkateak. Hemendik aurrera, lege hauste txikiak lehendabizikoz egiten dituzten gazteei alkateak ez die isuna edo salaketarik jarriko. Mesede horren truke 'gaizkileek' lan sozialak egin beharko dituzte. Modu horretan gazteek ez dute aurrekin penalik izanen, eta horretaz gain —alkatea eta Francisco Muñoz udaltzaingoaren buruzagiaren iritziz— gazteen benetako damutzea bultzatuko da.

Alkateak dioenez, modu horretan bigarren aukera bat ematen zaie gazteei. «Ekintza garrantzi handikoa izan ez bada, eta egileak egindakoak damutzen badira, bigarren aukera bat ematearen alde nago». Alkate jauna ordea, ez dago hirugarren aukeraren alde, eta horrelako ekintza batean bigarren aldiz parte hartzen duten gazteek legeak finkatzen dituen isunak ordaindu beharko dituzte, alkateak berak eta udaltzaingoaren buruzagiak adierazitakoaren arabera.

Joan den urteko apirilean Udalak lehendabizikoz hartu zuen bide berria, eta Los Llanoseko zelaian hamabi zuhaitz bota zituzten Lerineko bost gaztek botatako zuhaitz bakoitzeko beste hiru landatu zituzten isunak ordaindu ordez. Joan den astean Udalak hemendik aurrera bide horri eustea erabaki zuen, eta errege gauan atari bat klarionaz zikindu eta ihesaldian 50.000 pezetako kaltea eragin zituzten lau gazte Los Llanoseko zelaia garbitzen aritu ziren igandean.

Lizarrako Udalak ireki duen bide berri horrek ohiartzun nabaria lortu du irrati anitzetan, eta



ohiartzun horrek Lizarrako gazte gehiago bide hori jarraitzera bultzatu ditu. Asteartean beste hiru gaztek Los Llanoseko zelaia garbitzeari ekin zioten, isunak alde batera utzi ahal izateko. Gazte hauetako bik kirol ikuskizun batetako ibilbidea finkatzen zuten zintak hausteagatik 15.000 pezetako isuna ordaindu behar zuten, eta besteak bere txakurra kalean zehar lotu gabe eramateagatik 25.000. Esan bezala, orain arte gazteek Los Llanoseko zelaian gauzatu dute beraien damutzea, baina Udala dagoeneko beste balizko lan sozialak aztertzen ari da.

Bideak ez du mugarik

J.K.L. / LIZARRA

Lizarrako Udalaren bide berririk sortu duen zalaparta Nafarroako hiriburura ere heldu da, eta Jose Javier Etxeberria IUko zinegotziak bide berri horren aldeko proposamena aurkeztu behar du Iruñeko Udaletxean. Iruñean, jakina denez, ganberrismoa behir baino gehiagotan nagusi izaten da asteburuetan, eta sarritan lege hauste arinak baino zertxobait gehiago izaten dira asteburuetako jarduerak bortiz horiek —Taconerako Andra Mari Zuria eta indioilarrak horren lekuko—. Eta horixe da bide berri honen hedatzea oztopatzen duen arazoa, 'ganberrismo arina' eta

lege hauste latzak banantzen dituen muga nork eta nola finkatzen duen zehaztea.

Jose Luis Castejon Lizarrako alkatearen hitzetan «instituzioak kolokan jartzen ez dituen lege haustea horrela zigortu daiteke». Alkatearen ustez, muga zehazterakoan kontutan hartu beharreko faktore garrantzitsuenetarikoa Udaltzaingoari errespetua izatea da. «Egun errezagoa da udaltzain bat iraintzea, goardia civil edo polizia nazional bat iraintzea baino. Udaltzain bati zaplastako bat ematen dion edonori zuzenean isuna eta salaketa jarri behar zaio». Baina hori da Lizarran finkatu duten muga bakarra, Udaltzaingoa ez irain-



Castejonek Los Llanos aukeratu du 'zigorretarako'. SALSAMENDI.

tzearena. Beste lege haustek arinak edo latzak diren alkateak finkatzen du inolako legearaudiaren laguntzarik gabe, legalki lan sozial horiek ez bait dira udalaren agindupean egiten. Bide berria arautzea arazo legal aunitz zekartzan, eta alkatearen ustez,

hoberena ezer ez finkatzea zen, «lege hauste berberak testuiguru ezberdinean zigor gogorragoa merezi bait dezake». Jose Luis Castejon alkatea bere usteen arabera finkatzen du nork izanen dituen aurrekari penalak eta nork ez, inolako mugarik gabe.



ARIBEN kokatua eta Aezkoako Batzarrak bultzatu duen Irati izeneko irrati prest dago jada. Irratia ostegunean prentsaurrekoan aurkeztu zuten Iruñean, eta gaur saio berezia egin ondoren, heldu den astean martxan hasiko da. Hasteko Iratik egunero bi orduko saioa egingen du eguerdi aldera, eta aurrerantzean emisio ordutegia zabaltzeko asmoa dute.

BAZTANgo San Anton eguneko zozketak inoiz baino baztandar gehiago bildu zituen joan den igandean. Zozketatzen zen behia Urdazubi aldera joanen da; izan ere, bertako Pedro Jose Tomasena Mihura nekazaria zozketan irabazle atera zen. Tomasena Alkerdi auzoko Altzualdeberea baserrikoa da. Bigarren saria, txerri bat hain zuzen ere, Iruritako Felipe Arretxeak eskuratu du.

LIZARRAko tabernarik zaharrena berreraikiko du Emilia Aginaga tabernaren jabeak. El Maño izeneko tabernak duela berrogeita hamar urte ireki zituen bere atea lehendabizikoz, eta harrezkerotik lizarratar anitzen topagunea izan da. Urte honen amaieran tabernaren atea berriro ere zabalik izanen dira.



ALTSASUko Sociedad Deportiva Alsasarra (SDA) taldeak hondoa jo du. Duela 25 urte sortua, inoizko ekonomi krisi larriena dauka egun elkarrekin, 20 milioiko zorrarekin, eta horri aurre egiteko egitasmoari ekin dio. Emilio Boulandierrek zuzentzen duen taldeak, horrela, kuotak eguneratuko ditu, eta beste neurrien artean, Udalari eta Kirol Patronatuari zorraz arduratzeko eskatuko die. Izan ere, kredituek itota dago egun SDA, aurreko zuzendaritza batzordeak egindako gestio okerren kariatz.

KASKANTE eta Tuteran artean dagoen Pulguerrek urmaela lehertzeko arrisku larrian dago, Erriberako Landazuria talde ekologistak salatu berri duenez. Urmaela erreserba naturala da, eta, beraz, legeak babestuta dago. Bertara Alhama ibaiaren ura doa, baina talde ekologistaren arabera, Zentronikoko Ureztatzeko Sindikatuak, Tuterako eta Ingurugiro Sailaren artean, lan batzuk direla eta, ez diete uzten behar adina ura hartzen. Pulgueren txori mota frankok paratzen ditu kabiak udaberrian, baina egoerak horrela jarraituz gero, arrisku handia litzateke espezie hauetarako.



Nafarroako eskola maparako proiektua aurkeztu du Gobernuak, LOGSE legearen tresna nagusia alegia. Egitasmoak 18 aldetan banatzen du lurraldea, eta irizpide nagusiak izan dira dagoenarekin aurrera egitea eta

16 urte bitarteko irakaskuntza toki orotan ziurtatzea. Kritikak ez dira berandutu, elkarrizketa falta ezezik, euskarazko irakaskuntzak duen tratamendua ere direla kausa eta arlo pribatuak sarea bere kabuz osatu ahal izango duelako.

Ikasleen mapa

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

LOGSE legeak hamar urteko epea ezartzen du maila ezberdinetako irakaskuntzak indarrean jartzeko, eta Nafarroan iazko ikasturtean paratu zen martxan Hezkuntzaren Bigarren Zikloa. Orain aurkeztu duten eskola mapak Nafarroako ikastetxe guztien planifikazioa zehaztuko du erreforma nagusi honen arabera.

Proiektua aurkezteko erak, baina, sindikatu, udal eta irakaskuntza arloko partaideen lehen kritikak sortu ditu. Izan ere, Gobernuak iazko apirilaren 3an aurkeztu zituen Parlamentuan maparako irizpide nagusiak, eta ondoren eraman zituen Hezkuntza Batzorde Gorenera. Hemen ordezkariak dute administrazioak, irakasleek, ikastetxe pribatuek, ikasleen gurasoek eta Ikastolen Federakundeak, eta irizpide hauei zuzenketak egiteko aukera eskaini zieten orduan. Hala ere, zenbait hitz teknikotan soilik oinarritu ziren aldaketak bertan, oinarritzeko arazoetan sartu gabe.

Abenduan, eskola maparako proiektua aurkeztu zuten batzorde berean, baina modua ez zen egokiagoa. «Irakurri baino ez zuten egin —esan du Jesus Sainz de Murieta STEE-EILAS sindikatukoak—, eta ez ziguten hitz egiteko aukerarik eman. Publikoki ez genuela azaldu behar esan eta gero bi eguneko epea eman ziguten zuzenketak aur-



Nafarroako haurren irakaskuntza berriak erreforma honetan dauzka ardatz nagusiak.

JOXE LACALLE

kezteko». Iritzi berekoa da Iñaki Biain, Sortzen taldekoa. «Gobernuak bakarrik irizpideak eztabaidatu nahi ditu eta gainontzekoa 'teknikoa' dela esaten du».

EUSKARAREN KALTERAKO DESOREKA

Moduaz gain, euskarari emandako tratamendua gogor kritikatu dute sindikatuek eta ikastetxe frankok. Izan ere, proiektuan traslado franko daude aurrikusita ikastetxeen artean, maila ezberdinak orekatu ahal izateko, baina euskal lerroek

mugimendu askoz ere handiagoa dutela uste dute. Biainen esanetan, Gobernuaren proposamenak «behin baino gehiagotan» hausten du oreka, euskal lerroen kalterako. Iruñea-Erdiak ez dauka bigarren mailako irakaskuntza euskaraz, eta eskaintza Fernando Remacha institutuan bilduko da, Ermitagaina, Torre Basoko edo Iturrama bera horretarako toki aproposagoak izaki, auzo hauek dagoen eskaera dela eta. Uharteko euskarazko ikasleek lau ikastetxetatik igaro behar

izango dute 18 urte arte —Uhartea, Atarrabia, Burlata eta Txantrea—, eta erdarazkoek, soilik bitatik —Uhartea eta Burlata—. Atarrabian, antzekoa. Desoreka hauek ere nabariak dira Gares, Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoan.

Gobernuak erabilitako irizpideen arabera, populazio kopuru txikiarekin justifikatzen dira trasladoak, baina erdarazko kasuetan ez da berdin gertatzen. Bortzirietan, erdarazko eskaintzari 18 urte arte eusten zaio, nahiz eta, aurrikuspenen arabera,

sei urte berru hamar bat ikasle baino ez diren izango. Elizondo eta Donezteben, berdintsu.

IRAKASKUNTZA PRIBATUA BERE KABUZ

Bigarren kiritika irakaskuntza pribatuari emandako tratua izan da. Gobernuak baimena eman die ikastetxe pribatuei sarea beren kabuz osatzeko. Sainzen ustetan, «honek erakusten du ikastetxe pribatuek nahi dutena egiteko eskumena daukatela, eta benetako plagintza batean dena zaku berean sartu beharko litzateke».

Arlo pribatu honetan ere sartuta daude ikastolak, baina Begoña Errasti Nafarroako ordezkariak ez du uste diskriminaziorik egon denik. «Guk gure sarea aurkeztu dugu Hezkuntza Sailean, baina ez da egia nahi duguna egin dezakegunik, eta baldintza bat jarri digute: bigarren mailan bi unitate toki orotan. Hori, jakina, ezinezkoa da hainbat lekutan». Ikastolen Federakundeak aurkeztutako planak egun dagoenari eustea du helburu. «Ikastola guztietan 16 urte bitarteko ikasketak izan nahi ditugu, eta batzuk elkartzen ditugu horretarako. Horrela, 16 urtetik aurrera Lesaka eta Bera batzea proposatzen dugu, eta berdin Etxarri-Aranatz eta Altsasun. Paz de Zigandan eta San Ferminen, 18 urte arte. Sare hau aspalidanik dugu aurkeztuta baina orain arte ez digute erantzun».

Eskola Mapa

VICTOR MORENO

Mapa guztiak, batzuek, fusil edo hauteskundeen laguntza eztabaiddaezinen bitartez, espazioa zatitu eta banatzeko eta besteei inposatzeko erabiltzen dituzten artifiziozko tresnak dira. Mapek, beraz, errealitate bat inposatzen dute: garaileen errealitatea, OHoko ikasle guztiek badakite Geografia eta Historian ikasten dituzten mapa gehienak guda, biolentzia, itun baten ondorio direla, eta bertan irabazleek muga eta muturrak ezartzen dizkietela galtzaileei. Beti izan da horrela.

Ez da harrizkoa, beraz, Nafarroako Gobernuak, beste hitz lasaigarriagoa erabili beharrean, mapa hitza erabili izana, inposizio eta garaipen konnotazio guztiekin. Izan ere, eskola mapak gerra baten ondoren paperetan idazten diren mapa guztien akats eta birtute berberak dauzka. Nafarroako Gobernuak, hauteskunde gerra irabazteagatik ustez duen legitimitatearekin, alderdiari —ez ordea nafar gizarteari, orokorrean— ongi datorkion mapa ezartzen saiatzen ari da.

Nik, lehendabiziz, ez dut oso ongi ulertzen txapela eta patxaranaren gobernu honen harrokeria, eskola mapa burutu duen lehendabiziko komunitatea dela lau haizetara esaten duenean. Mapa baten kalitatea, adituek dakitenaren arabera behintzat, ez da neurtzen egiteko erabili den abiadurarekin, xehetasunak, nabardurak eta ongi diseinatutako lerroekin baizik. Horrek eskatzen du, beraz, antolatu nahi den errealitatearen azterketa serio eta sakona. Eta esan beharra dago eskola mapa ez dela eztabaidatu marra bat baino gehiago trazatu ahal izan luketenekin, hots, udalekin, gurasoen elkarteekin, eskola kontseiluekin, sindikatuekin. Ez dira parekatu, inoiz ere ez, irizpide eta baliabideak. Eskola maparen haurdunaldia eta erditzea iluntzean eta alde zurretik prestatutako alebosiaz burutu dira. Harrizkoa da antzematea Nafarroako Gobernuak, erreforma ikaste-

txetan eztabaida dadin bazterrak nahastu ondoren, eskola maparen arazoan ezta San Tomasi ere ez diola betarik eman eskua sartzeko.

Bigarrenik, eskola mapa ez da planifikazio bat, politikarien interes faltsuak asetzeko banaketa lurralde-administratiboa baizik. Eskola mapa Nafarroako irakaskuntzaren Taifaseko erresumetan egin den banaketaren ondorioa da, udal garaile eta galtzaileen artean. Hainbeste nahaste, salbuespen eta behin-behineko mailak daude, ezen gobernuko teknikariek nahi dutenean bihurtu ahal izango dutela erbia txota.

Hirugarrenik, eskola mapa galtzailentzat dago egina, hau da, lerro publikoarentzat. Eskola mapa planifikazio serio baten ondorioa izan balitz lerro pribatua ere irizpide berberekin neurtu beharko zen. Hau da mapa honek sortzen dituen mesfidantzen artean pisuzko arrazoietakoa

bat. Gobernuak egindako mapa hain ongi egin baldin bada, zergatik ez zaio aukera hori eman pribatuari? Dudarik gabe, mapa honekin probetxu handien aterako duena arlo pribatua izango da, zeinen mugek higitu gabe dirautela.

Laugarrenez, eskola mapak hankaz gora jartzen du euskararen legea, eta aldeko banaketa ezbaian paratu. Sakabanatze geografikoarekin ikasle askok lau ikastetxetatik igaro behar izango dute. Ulertu nahi duenak uler dezala.

Bukatzeke. Mapek ez dute ezer konpontzen. Soilik indarrean jarri arte dira onak. Europa gaixo eta zaharkitu honen azken ikasketa geografikoek hori baieztatzen dute. Mapak atzo arte ziren politak. Bat-batean, eztanda egin dute. Eta horrela izango da eskola mapa honen kasuan ere. Udalek zezen honi adarraz ikusi orduko, lasterka bizian aterako dira, politikariak, ez adardunak. Finean, garai txarrak datozela eskola publikoa zein euskararentzat.

Arturo Campion Ikastetxeko Zuzendaria

NAFARROAKO ESKOLA MAPA



- 1 **BERA**
Beran mail guztiak institutua barne, eta bost herrietan Lehen Mailara arte.
- 2 **BAZTAN**
Elizondo eta Lekarotzen 18 urte bitarteko ikasketak eta Donezteben 16 urte bitartekoak.
- 3 **LEITZA**
Leitzan aukera osoa, eta Bigarren Mailako ikasketak euskaraz denak. Erdarazkoak Irurtzenen.
- 4 **SAKANA**
Altsasu distritoburua eta bertan zerbitzu guztiak 12 urtetik aurrera.
- 5 **LIZARRA**
Lizarran eskaintza osoa, eta Zudaire eta Uantzia 14 urte arte.
- 6 **LODOSA-SAN ADRIAN**
Lodosa eta San Adrian zonaldeburuak, eta Mendabia eta Azagran 16 urte bitartekoak.
- 7 **KORELLA**
Korella distritoburua, eta Kastejon eta Fiteron Lehen Mailako ikasketak. Zentronikon 16 urte arte.
- 8 **TUTERA**
Tutera distritoburua, eta Kaskante, Ribaforada, Kortez eta Balterran 16 urte arte.
- 9 **MARTZILLA-AZKOIEN**
Bi distritoburu: Martzilla eta Azkoien, eta Zarrakastelun 16 urte arte.
- 10 **TAFALLA**
Tafalla distritoburua, eta Erriberrin 14 urte arte.
- 11 **IRUNBERRI-ZANGOZA**
Bi distritoburu: Iruberrin eta Zangoza, eta Garraldak, Otsagabiak, Errinkarik eta Agoitzek 14 urte arte.
- 12 **BURLATA-ATARRABIA-UHARTE**
Burlata distritoburua. Uharteko euskarazko lerrokoak: Uharteko (6 arte) Atarrabia (12 arte) Burlata (16 arte) Txantrea (18 arte).
- 13 **ZIZUR**
Zizur Nagusia distritoburua. Garesko euskarazkoak: Gares (12 arte) Zizur (16 arte) eta Barañain (18 arte).
- 14 **IRUNERRIA**
Fernando Ramachan euskarazko ikastetxea jarriko da. 12 eta 18 urte bitartekoendako. Txantrea doaz Burlata, Berriozar, Irurtzun, Agoitz, Garralda eta Otsagabiako euskarazkoak.

I.MARTIARENA

Salbuespenak, euskararen kalterako

A.B. / IRUNEA

Eskola mapak 18 aldetan banatzen du Nafarroa, eta bertan sakabanatzen ditu martxan dauden 317 zentroak. Gobernuaren teknikariak erabilitako irizpide nagusienetako bat dagoenarekin moldatzea izan da. Zentro berri gutxi irekiko da, beraz.

LOGSE legearen arabera, hiru mailatan banatuko dira aurretiazko unibertsitate kanpo-ko ikasketak: Haur Hezkuntza (0 eta 6 urte bitarte); Lehen Mailako Hezkuntza (6 eta 12 urte bitarte) eta Bigarren Mailakoa (12 eta 18 urte bitarte), eta ikasle guztiak izango dute Bigarren Mailako derrigorrezko ikasketak (16 urte arte) egiteko aukera. Alde guztietan izango da aldeburua, 18 urte arte ikasketak egiteko eskaintzarekin, eta OHO duten herri orok izango dute 12 urte bitarteko irakaskuntza. Hala ere, hemen sortu dira lehendabiziko eztabaidak, erdarazko mailetan bai, baina euskarazkoetan ez baita betetzen: Iruberrin-Zangoza aldekoak —Aezkoa, Luzaide, Erronkari eta Zaraitzurekin, besteak beste— Txantrean egin beharko dituzte Bigarren Mailako euskarazko ikasketak.

IRUNEAN REMACHA IKASTETXEA Bestalde, Bera, Leitza, Korella eta Zizur Nagusian batxilergo institutua izango da, eta Iruñean aspaldiko eskakizuna izango da aukeran: Ertaineko ikasketetarako euskal zentro bat, Fernando Remacha ikastetxean. Honek ere polemika bizia sortu du Iruñean, aspaldian eskatutako zentroa izanda ere, zeharo bartzeturik gelditzen baita hiriko erdigunetik, eta —garrantzitsuen— logikoagoak izango ziren beste aukerei muzin egiten baitie. Horrela, barruti oso bat —Iruñea-erdia— Bigarren Mailako euskarazko irakaskuntzarik

Iruñeak ikasketa ertainetarako euskal zentro bat izango du, Fernando Remacha, baina honek polemika sortu du, hirigunetik urrun baitago eta zentuzkoagoak diren beste aukera batzuei muzin egin baitzaie.

gabe gelditzen da, eta erdarazko hirurekin —Vianako Printzea, Ximenez de Rada eta Jose Viala—.

Beste aldeetan ez dira gehiegi aldatzen gauzak, baina kritika eta eztabaida gogorrek sortu dituzte erabaki batzuek, tartean hainbat herritako interesak ere daudela. Murtxante eta Kabanillaseko udalek protesta ofiziala egin dute dagoeneko, logikarik gabeko trasladoak direla eta, baina erantzun gogorrena Korellako aldean izan du egitasmoak. Bertan Korella izango da barrutiburua eta Zentroniko horren aurka azaldu da, manifestaldi erraldoia eta guzti.

Bortzirietan Bera izango da barrutiburua eta aukera osoa izango du. Baztango barrutian Baztan izango da burua, Elizondo eta Lekarozko zentroekin, eta Donezteben 16 urte bitarteko ikasketak egiteko aukera izango da inguruko herriko ikasleendako. Leitzaldean, Leitzak eskaintza guztia izango du, eta Bigarren Mailako erdarazko ikasketak, 14 urtetik aurrera, Irurtzenen burutu beharko dira. Goizueta, Betelu eta Lekunberrin 14 urte bitartekoendako ikastetxeak izango dira.

Akabatu dira

● Akabatu dira. Fini. Hemen ikusi genituen azkeneko aldiz, eta sortu kriston eztabaida sortu ere jaialdiaren ondoren: ordu txikitako mozkor iskanbilak esanen luke edozeinek, baina hala ere hortan aritu ginen, eta suturikatu ere, eguzkia berriz jaiki zen arte. Akabatu dira. Fini... Hertzainak diot, gure urte-geografiaren mapa marraztu duen musika taldea, beste edozeinek, hala nola zimurrek, edo Ordorikak edo M-ak berak, marraztua duena porzieto. Baina beste gauza batzuek gain, beti izandu naiz Hertzainak zalea eta akabera hau niretzat ez dakidan zerozeren akabera da, bakoitzak bere erritual partikularrak ditu, noski, bere bereak diren liturgiak, bere mugarrak, hautsi eta ez betetzeko noski, baina bereak diren heinean beti zalantzan ohi dugun lur honetan, ustez sustraitzen laguntzen diotenak.

Eta atzen honetan gehiegi praktikatzeko dugun ariketa, o iragana erraiak zikintzen dizkigun musika alu hori, praktikatzearren, ez dut inoiz hartzaro eta nerabe aroz orain bezainbat hizketatu, hamar urte inguruko iharduna ekarri nahi dut gogora oroimin pixka batez (nork ez du gustoko bere bizitzaren zimaurretan inbuluzkeka ibiltzea).

Zein moderno eta iraultzaile ginen garai haietan (ja idazteko nahiari eutsi egingo diot), maketa horretaz akordatzeko zarete, 'Rock and roll-Batzokian' eta denok jo ta fuego, heriok hartuta bezala dantzari, eta etxean guda genuen, porrogeatik eta gure aita PNV-koa zelakotz, eta horrela ustekabeen kanta haietatik ateratzen genuen istilu guzti haiei aurre egiteko kementa, ze batek, apika oraindik ere bizitzaren arazok off-side harrapatzen dutelakotz edo, bere bizitzako errealtate-mugarritzat bizi izan baititu (orain horrela idatzi behar omen da) kontzertuak eta abar.

Edo 'Eh txo' hura, herrian hainbeste interpretazio sortu zituen, zeren, diskoak erosteko adina diru ez, eta leloak «Que te he dicho que no» esaten zuela zioten batzuk, edo pinuarenean akaberara Hertzainak «hau astakeria» ziotenean guk «la baska keria» entenditzen genuen, hortik atera kontuak, eta gu luze bezain zabal geratzen ginen, abestiak benetan zer zioen jakin genuen arte, eta, noski farrez lehertzen pasatzen genion ondokoari porroa. Eta destinu petralaren, zer... igual igual zen kantak zer zioen, gerora enteratu ginen drogetaz aritzen dela, baina, orduan oraindik ia ume mukizu, destinu petrala genuela uste genuen nahiz oso ongi jakin ez zer esan nahi zuen horrek

(errazegi hitzen doinuez baliatuz egin daitekeen aldaketa, are eta modu egokiagoan gerora etorritakoa erabaitzen duena: destinu hutsala).

Disko etsia atera zitzairen hurrengoa 'Hau dena aldatu nahi nuke'. Eta jada has zitekeen susmatzen bakardadetik abiatuta ikasiko genuela, ikastekotan, ('nerau neronen jabe besten beharrik gabe' Miranderen poemak dioen bezala) gure burua, zeren jada hasi bait ginen konprenitzen arazoak ematen zizkigun 'gure burua' bagenuela izan ere, eta ska musikaren erritmo jauzleri eta dantzarinak eremu ilunagoen bideetan barna abiatu behar ginela doinu eta kitarra hatzamaradura garratzagoek ordezkatu zituzten. Kitarak zorrotz egin ziren, giroak hurrundu bezainbatean gaizkitu eta halako giro eria zerion kasetaren zintari.

Eta 'Salda badago', berriro ere alegantzia pixka bat. 'Gangster berriak' poterean zeudenean, jada, aski ongi Gangsterrak zirela frogatu zutenean, Demokrazia, estatistikaren gehiegikeri hori, batek zioen bezala, zopan eta guzti ateratzen zenean, Poterea gure hitz sakratuenez jabetu zenean, esaten zenuena esatean, hitzak jada beste hitz batzuk zirelako edo, esaten ari ez zinena zenionean, orduan bai, orduan. Zeren beraiek, Hertzainak alegia, hitzen zentzu ohostenari zitzaizkigulako susmoa baino gehiago segurantzaz azpimarratu bait dute 'Gangster berriak', 'Amets prefabrikatuak' 'Ibili dabilte' edo 'Nola aldatzen diren gauzak' bezalako kantetan, iturburuari atxikia segitzea, gaur egun Aldaketaren Jakituria edozertarako jakituria balio duen tapakia izanik, hemen egoteko, izateko modu bat dela, ispiluaren aurrean, ispiluak dena aldatu delako konstatazioa itzuliagatik, egoteko modu bakarrenetako bat.

Eta gero abestia etorri zen, Hertzainak pasteldu egin zirela erabaki genuenean, 'Aitormena', denoi bihotza hunkitu, eta, lotsaz edo, azaltzera atrebitzen ez gineneko kanta, pastel pastela baina zein gozoa, nere lagun batek zioen moduan, nata guzti hori erortzen, lehengusinari nere autoa estropeatuta zegoelakotz berea eskatu eta zinta batetan hamaika aldiz, hamaika entzuten duzen bezala, grabatuta zuena, abesti hori, batzuren ustez Hertzainak taldearen hiltzoria markatu zuen disko eta abestia, gerora, batzuren ustez, plastikozkoak besterik ez baitira izan, gu bezala oroitzen jartzen garenean.



Gazteendako Zokoa

Dilindaria

Remiz pendulinus

Lertxundietan ia beti
Zonalde mediterraneoan
Mila baino gutxiago
Nafarroan



Txori artista

Txori honen ezaugarri nabarmenetakoa bere kabia da, benetakoa arte lana. Lertxun baten abarratik zintzilik gehienetan, makal edo sahatsak ere aukeratzeko dituen askotan horretarako, eta puxika baten antza hartzen du, sarrera goian duela. Bertan nahasten ditu trebeziak zuhaitzen haziak eta baita armiarmen sareak eta beste motatako fibrak ere. Txorikumeak hezitzeke garaia amaitzean, bertan irauten du, eta askotan bere presentziaren erakusgarri izaten da.

Txori txikia du dilindaria, burua eta bularraldea ia txuria, eta begiak estaltzeko antifaza antzeko zolda beltzarekin. Ezkutuan aritzen da askotan, eta barkarrik bere kantu argiari esker antzeman daiteke. Neguan taldeka aritzen da zingiretan, baina beste garaietan bakarka.

Nafarroan zonalde mediterraneoan bizi da, baina Europan iparraldean ere aurkitu daiteke. Beti ibaien inguruetan egon ohi da —Ebro, Ega, Arga, Aragoa, Alhama, Keiles—, eta lertxundietan nahiago. Beti ere, 500 metroetatik behera. Hala ere, Nafarroan ez da oso ugari, eta zenbait errolda ehundaka alez ari dira, inolaz ere ez mila baino gehiago.

IXARO ONDARRA

Gerra ondoko garaiak benetan latzak izan ziren gure etxean; aita preso eramane zuten komunista omen zelako. Nere umekeri eta ernaigabetsunak ordea ez zuten hura sekulan ulertu, gertakari hark betirako aztarna sakon bat utzi zidalarik.

Aitak zintzotasunaz jokatzeko erakutsi zidan; bere eredu jarraitzen saiatu arren, udazkeneko egun goibel hartan txapelgorri haiek etorri eta aitaren oposaketa nahikoa ez izanik, indarrez eramane zuten. Ez genuen inoiz gehiago gure aitaren berririk izan. Gertakari hura nolabiz bizkarretara bota behar izan genuen bizi aurrerantz zihoalako.

Etxean ama, osaba, amona, aiton eta ni bizi ginen; gure baserria sendoa eta ederra izanik herritik zertxobait bazterturik zegoen, mendiaren oinetan eta larre amaiezinen magalean. Lan guztiaren zama amak eta osabak zeramane amona eta aiton zaharturik baitzeuden. Nere osaba sasoi handiko gizona zenez, lanean gogor aritzen zen oilarrek abesten zuenetik, ilargia agertzen zen arte. Amaren lana ez zen gutxiagokoa, baina bai beste era batekoa; emakume bati zegokion noski: etxearen garbiketa, sukaldaritza, soroen eraintzea... Nik bestalde, ahal nuen neurrian laguntzen saiatzen nintzen, gogoak soberan baintuen. Amona eta aiton ordea, nahiz eta saiatu, ez ziren gai gauza askorik egiteko, eramandako biziaren gogortasunaren ondorioz indarrak ahi-turik batzituazten. Nere ama goren nuen; berak egindako gutzia ondo zegoen neretzat. Ile beltz uhindua eta begi argiak zituen; begirada bizi eta ezpain itzaliak. Horrelakoxea zen bera.

Amona bestalde, apartekoa; bere jakintzak itsutzen ninduen. Eskola ezagutzeko aukerarik ez zuten izan, baina bai Ama Natura ezagutzeko aukera. Berarengandik jaso nuen eskolara ez joateko zaletasuna; askoz ere hunkigarriagotzat nuen mendian barrena naturaren indarra askatasun osoz

Beranduegi

sentitzen gela itxi batean egun erdia igarotzea baino.

Gauero amona eta biok sutondoan tseritzen ginen; egoera hura biziki maite nuen. Momentu batez nere izatea ahaztu eta bere kontakizunetan murgiltzen nintzen. Egutero gauza ezberdin bat zuten kontagai: ipuinak, gertakizun bitxiak, aintzinako ohiturak... Behin batez, nere jakinmina piztu zuten zerbait ezagutzera eman zidan:

—Gogoratzen al duzu Baztarrikantai izeneko dermioa?— Nik baitez erantzun—. Duela urte asko, nere aita arratsalde euri-tsu batean bertan suertatu zen. Han dagoen kobazulo batean aterpea lortu ondoren, eseri eta euria noiz geldituko zain hantxe gelditu zen. Halako batean, tximista batek aurreko zuhaitz bat jo



zuen, eta bapatean tximistaren su hartatik emakume eder bat sortu zen; jarraian kobazulorantz zihoala aita ilkusirik, berriro ere tximista bilakatu eta ihes egin zuen. Aita etxera bueltatzean, ikusitakoa kontatu zuenean denek bere lepotik far egin zuten nik ezik. Badakit berak ez zuela deus asmatu eta emakume paregabeko hori Mari zela. Biloba maitea, hau ez diot inori adierazi orain arte baina hil aurretik zagan nere sekretua utz nezakeela uste izan dut. Kontakizun hark liluraturik utzi ninduen eta egun hartatik aurrera nere helburu nagusia Baztarrikantaieko kobazulora

joatea izan zen. Jadanik udaberria iritsi zitzaigun: txorien erresoinua zelaietan barna, hosto berrien usain sendoa, hainbat koloretako loreen sorrera.

Garai hartan amona hilzorian genuen mundu honetako aurrekuntzak mindurik. Dena den, arratsalde batez kobazulora abiatu nintzen Mari aurkitzeko itxaropenaz, amonari bizitzen jarraitzeko gogoak eman ziezaiokeen zerbait aurkitu nahi nuen eta. Asko kostata seirak inguru izango ziren kobazulo gogoangarri hura ikusi ahal izan nuenerako; erdi estalirik zegoen arduragabekeriak jota, beldurrak nengoen baina barneratzea erabaki eta sasiak kendu ondoren nere begiek barruan emakume paregabeko bat ikusi ahal izan zuten. Lurrean etzanik, soineko beltz eta luzea zeraman; Mari zen. Gerturatu nintzaion baina berak indarrak izango ez balu bezala ez zen mugitu. Nik bere ize- nez deitu nuen eta bere begi urdinek malkoz gainezka begiratu ninduten hau esanez:

—Zure zain egon naiz urte hauetan, baina jadanik beranduegi da gizonak egindako min guztia konpontzeko; ur gardenak beltz bilakatu dira, aire freskoa aire kutsatu. Banoa hainbeste maite eta zaindu izan dudanez nere lur honetatik. Ortzik deitzen nau.

Begiak itxi zituen eta aurrean nuen emakume hura lur beltz bilakatu zen. Ezintasunak bete ninduen eta malkoek nere aurpegia busti zuten. Handik ihesi atera nintzen, ikusitakoa ez baitnuen onartu nahi; egin nahi nuen gauza bakarra amonarekin egotea zen, baina harengana ere beranduegi iritsi nintzen amona arratsalde hartan hil baitzen.

Orduan konturatu nintzen gizonaren aurrekuntzak amona eta Mari hil zutela.

Saia gaitezen bada, gure Ama Natura zaintzen eta errespetatzen.

Ama ez nigarririk egin txoririk abesten jarraitu baitu.

Ama, ez nigarririk egin otsoak ez baitzaitu eramango.



BASAJAUN

Eta bigarrena da, oso denbora gutxian. Hondamen berri honetan, hitzak soberan daude, eta erantzun bakarra negar egitea da atsekabe berri honengatik. Egutero gutxitan itsasoan zehar bere zama guztia barreiatu duen bigarren petroliontzia da. Ingu-rugiro eta paisai konparaezina, edertasuna eta bizitzaren zolda hiltzailea: betidanik pena merezi duen oren hiltzailea.

Bada garaia esateko: Ez naiz ixilik geldituko!, terrorismo ekologiko honen aurrean. Erantzunkizunak eskatu beharra dago! Nola liteke Europako Komunitateak gai honi buruz inolako legerik egina ez izatea? Europarrak: jan ezazue zuten ikurrina urdina, itsasoa —kendu diete bere urdina— beltzez tindatu dute, lurra osoko espeziatzenak doluminaren kolorez: heriotza eta atsekabearen kolorea.

Eta zenbat izan dira azken hogeitortu? Mota honetako itsasontziekin gertatzen bada, zer gerta liteke arrisku handiko merkantziak —hondakin erradioaktiboak— garraiatzen dituztenekin?

Horrelako gertaerek garbi adierazten dute ekologia ez dela txantxetarako gauza, askotan ekonomi familiarak larri kalte-tuta izan baitaitezke, A Coruña gertatu den bezala.

Eskoziako kostaldean, desgertzeko arrisku larrian zeuden espezieak petrolio zolda trinko batek harrapatu eta estutu ditu, eta ugaltzen asko —fokak, kasu— hil egin dira. Gizakumeak, bizitza ulertzeko era madarikatu eta nazkagarri, berriz diot, nazkagarriekin, hil egin ditu. Horrela erakusten du naturarekin batera bizi izatea zer den.

Jenero Xumekoak

Klaus Kinski antzeslea

Ni bada, hainbeste gizonen bizitza izan dudana, ez naiz sekula izan Aranoko nesken besoetan datzana.

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztu joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Basaburuan jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

- Ziri
- Ernaia, bizia
- Gailen
- Gutziz eskasa
- Ergel, xerbel

B	1	A	5	B	8	D	9	A	9		
B	4	D	7	D	10	A	8	D	3		
D	5	B	10	A	7	D	6	B	6		
D	1	B	3	A	1	D	8	A	2	B	5
A	4	D	2	A	6	B	2	B	9	A	3

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

Zaharrak berri

Berteen isatsarekin euliak kendu.

Guk hutsegina duguna besteek zuzentzea nahi

Anue

Irakasleak:

—Badakizue Amerikako ordutegia zergatik dagoen atzeratua gurekiko?

—Beranduegi aurkitu zutelako —batek—.

Bizi Bizian

Pasa den ostiralean EHNE nekazari sindikatuan sartzeko lehen bilera egin zuten Iruñerria inguruko berrehun bat nekazarien ordezkariak. Hasieran iragarrita zeudenak baino gehiago ere izan daitezke, baina, Deierri, Murieta eta beste aldeekin —Irunberritik Oteitzaraino doan sekain lur hezea— ere elkarrizketan hasiak baitira. Berriak gogor astindu du nekazaritza mundua, sindikatuan sartu behar dutenen artean UAGNn ibilitakoak eta baita sortzaile batzuk ere baitzeuden. Erregionalizazio plana eta, haien irudiko, zenbait diskriminazio, baina baita aspaldiko arazoek ere bultzatu dituzte erabakia hartzera, Eraulen erakunderako garrantza suertatu dena, halere. Hain zuzen ere, multzo berriak nolabait iraultzen du nekazaritza mundua, eta EHNE sindikatuaren goranzko bidea baieztatu.



Irunberritik Oteitzaraino doan aldeak Nafarroako ekoizpen tasarik handiena ematen du laborean.

Erdialdeko laboreak, nahasia

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Abenduko azken astean gertatu zen. Iruñea inguruko ostatu batean Izarbeibar eta Iruñerriko berrehun bat nekazari bildu ziren beren etorkizunari buruz mintzatzeko. Gehienak Orvalaiz kooperatibakoak, azken urteotan UAGN sindikatuarekin izandako arazoei irtenbidea ematea zuten helburua. Bertan hartutako erabakia Nafarroako nekazari sindikatuaren mundua bortizki astindu du horietariko 135 EHNE sindikatuan sartzearen alde agertu baitziren.

Nafarroako erdialdean dauden labore sailek lurralde osoko produkzio tasarik handienetakoa dute, eta Irunberritik Murieta eta Oteitzaraino doan marra oso bat hartzen du zonak, tartean Orba ibarra. Bertako nekazariak betidanik UAGNren inguruan ibilitakoak, lehendabiziko arazoak duela zenbait urte hasi ziren, Uteco elkartetik alde egin zuteanean. Orduan hiru kooperatiba zeuden Iruñerria inguruan —Ororbia, Alaiza eta Izarbeibar— eta hirurak batu eta Orvalaiz sortu zuten. Hortik aurrera UAGN, UCAN eta Uteco nekazari elkarteekin arazoak gero eta handiagoak izan ziren, eta azken tantak erregionalizazio plana eta zenbait lur sail lurgorrian utzi beharrekoa izan dira. Erregionalizazio planean dirulaguntzak zehazten dira zonen produkzioaren arabera, baina erdialdeko nekazariak —Orvalaiz, Deierri, Murieta, Oltza, Orba— ez zioten egoki iritzi UAGNk negoziatutakoari. Harremanek okerrera



Angel Eraul eta Mikel Petrirena.



JOXE LACALLE

egin zuten, eta azkenean EHNErekin lan egitea deliberatu zuten aipatu bilkuran.

«UAGN-n lortu ez duguna lortzera joango gara EHNEra:

erdialdeko sekain lurraren interesak defenditzera, alegia», esan zuten Manuel Martinez de Irujo Orvalaiz kooperatibako presidentek. Lehendabiziko bilera

Kolpe gogorra UAGNri

P.U. / IRUÑEA

Nekazarien erabakia ezagutu bezain laster afiliazio kopuruei buruz UAGNk eta EHNEk egin dituzten adierazpenek garbi asko erakusten dute berrien garrantzia. UAGN nekazari sindikatu nagusia —alde handiz— da Nafarroan, baina bere 'ohizko' eremuan berrehun —gehiago ere izan daitezke— bat nekazari EHNEn sartzeko kolpe gogorra izan da Eraulek zuzentzen duen erakunderako, izan den tokian izateagatik, hain zuzen ere.

Bi sindikatuaren eragin eremua

mugatua izan da, neurri berean, orain arte, eta Nafarroa banatuta zuten: iparra EHNErako, hegoa UAGNrako. Batzuen ustekabea izan da, baina, lehendabizikoa 'hegotzen' hasi denean. «Iparraldean geundenean» dio Petrirenak «jende askorendako komodoa zen, baina jeisten hasi garanean hasi dira arazoak. Gure helburua ez da bakarrik iparra, Nafarroa osoa baizik». Eraulek prentsaurrekoa eman behar izan zuten nekazarien artean UAGNkorik ez zegoela esateko, baina iragarri dituzten hautekondeek zenbait gauza argituko dute.

ofiziala joan den ostiralean izan zuten, eta bertatik pozik atera ziren nekazariak. «Ez dago inolako arazorik, eta aurretik pentsatzen genuen bezala izan da».

Mikel Petrirena Nafarroako EHNEko burua ere baikor agertu zen bileraren ondotik, eta kide berriak hasieran iragarrita zeuden baino gehiago ere izan daitezkeela esan zuen. «Haiek berrehun bat dira, baina hasiak dira harremanetan beste zonaldekoekin urrats berberak emateko. Hilabete barru edo izango dugu horren berri». «Murieta, Deierri, eta beste leku batzuetako nekazariak —baieztatu du Martinezek— guk ditugun arazo berberak dituzte eta harremanetan gauden haiekin. Animatu nahi ditugu gurekin etortzera». Horretarako lehen bilera aste honetan bertan egin dute nekazariak.

Berriak zonen arteko interes kontrajarrien itxura sartzeko balio izan du, neurri batean, baina Martinezek ez du uste arazoa konpontzen zaila denik. «Erribera eta gure alde desberdinak dira, dudarik gabe, baina akordioak, teoriak, ez luke zaila izan behar, interesak ere antzekoak baitira. Guk gureari eutsi behar diogu, baina epe luzean akordioa lortuko dugulakoan gaude».

Mikel Petrirenak, bestalde, planari berari leporatzen dio zonen artean sortu diren ezadostasun hauen ardura. «Zonaldeak elkarren kontra hastea oso txarra litzateke, eta horren sortzailea plana bera da, erreforma. Izan ere, ez da tajuzko erreforma bat, nekazarien kalterako tresna baizik».

Angel Rincon

Bardeen aldeko plataformakoa

Bardeetako Batzarreko presidentea izendatzeko bilkura egingo dute otsailaren 2an. Horretarako lehia bizia iragarrita dago UPN eta PSN-PSOEn artean, baina azken erabakia herrietako independenteen arteko plataforman

dago. Plataforma honek hasiak ditu elkarrizketak bi alderdi nagusiekin, eta alde honetarako aprobetxamendu egokia ematea du helburu nagusi. Politikak ere eragin handia izango du erabakian, Angel Rincon bertako bozeramaileak azaldu duenez.

«Bardeek garrantzi politikoa dute egun»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Orain aukeratu behar duzue batzordeko presidentea, eta bertan herri bakoitzak badu boto bat emateko aukera. Hala ere, alderdi politikoei buruzko hautagaiez hitz egiten da beti, beraz, badago alderdi politika, udalena baino gehiago?

ANGEL RINCON.— Beti izan da alderdi politika bertan, behintzat azken hamar urteotan. Alde batetik PSOE dago, eta bestetik UPN, ez hainbeste partiduarekin nola aldeko jende asko duelako. Tartean gu gaude, bi alderdi hauetatik kanpo, eta gure botoak beti izan dira erabakiorrak. Hor gaude Azkoien, Kortes, Zarrakastelu eta Funes. Gero badaude edozer gauza bota dezaketen herriak, hala nola Tuteran, indarrak oso parekatuta baitaude. Baita Fustiñana ere. Izan ere, bota ematen duena, berez, udal ordezkaria da, baina orain arte askotan alkatea izan da batzarrera joan dena. Hala ere, ordezkaria, berez, udalbatzan erabaki behar da, eta Kortesen, kasu, alkatea UPNkoa da, baina ez dauka gehiengoa. Horregatik, gauzak ez daude baxter garbi.

EGUNKARIA.— Zuek plataforma osatu duzue, eta harremanetan zaudete PSOE zein UPNrekin nori botoa emateko. Presidentaren izena baino, helburu batzuen bila ari zarete.

RINCON.— Izan ere, presidentaren izena gutxienezkoa da. Hiru hilabete daramatzagu elkarrizketetan, bi alderdiekin, eta bertan programa bat izan dugu helburu, Bardeei aukera bat emateko. Hautagaia zein den berdin zaigu, salbuespenak salbuespen, batzuk onartezinak baitira...

EGUNKARIA.— Jose Antonio Gaiarre, adibidez?

RINCON.— Ez, Gaiarri ez diogu betorik jarri, oraingoz. Guk bederatzi puntuko programa daukagu, eta horretan oinarritzen da gure botoa. Elkarrizketan ez dakigu noraino joango diren, eta urrats guztiak oraindik ez ditugu eman.

EGUNKARIA.— Elkarrizketak nondik sortu dira? Zuengandik edo haiengandik?


RINCON.— Elkarrizketak nahiko nahasiak izan ziren hasieran, baina azkenean zuzendu dira. Dena sortu zen duela bost hilabete, Arautegi Orokorra aldatzeko Gaiarrek egin zituen proposamenen ildotik. Ezetza eman zitzaizkien orduan, eta beraiek hasi ziren deika. Gaiarrekin behin baino gehiagotan egon gara, eta baita PSN-PSOeko udal politikarako buruarekin ere. Deia beti haiengandik sortu da, eta plataformarekin ezezik, talde bakoitzarekin ere banaka harremanak izan dituzte. Hala ere, horri moztu egin da, plataforma bera sendotu eta batu baita. Taldea hausteko arriskua beti hor dago, haiek proposamen konkretuak ere eskaintzen baitizkigute, baina gure koordinazioa gero eta hobea da.

EGUNKARIA.— Elkarrizketen lehendabiziko balorazioa egin duzue dagoeneko?

RINCON.— Dударik gabe, asko aurreratu da, eta Gaiarrek eta PSOEk, azken berrien arabera, gure planteamenduak onartu omen dituzte. Hori, beren hitzetan. Orain, akordio batean zehaztu behar ditugu hitz onak.

EGUNKARIA.— Arautegi Orokorra aldatzeko bilera famatu hartan, Gaiarrek bi artikulua aldatu nahi zituen, eta zuek kontra zeudeten. Bi puntu horiek dira eztabaidagai orain ere?

RINCON.— Guk Nafarroako Gobernuak egin zuen txostena



Rinconen ustetan alderdi nagusiek asko dute jokoan bilkuran. JOXE

jarri nahi dugu martxan. Bertan zehazten zen Bardeen ustiaketarako ardatz nagusiak: nola ustiatu behar den, utzi behar diren lurrekin zer egin, eta abar. Hori aurrera eramanez ahal izateko Arautegia aldatu behar da, oraingoen ezin baita ezer egin.

Gero, bi puntu zehatz horiei dagokienez, horietariko bat —buru bakoitzeko arrodada 750etatik 1.500ra igotzea proposatzen duena— baztertu dute

dagoeneko, eta beste puntua ere —landatzeari uztea, baina esku-bideak galdu gabe—, kentzea onartu egin dute azkenean.

EGUNKARIA.— Orduan, dena onartu dizuete.

RINCON.— Hori, jakina, papelean jarri behar da orain. PSOEk zazpi boto dauka, bere hitzetan, eta Gaiarrek zortzi bat izango du, antza, Miguel Sanz ere bere alde azaldu baita. Orduan, beste zazpi gelditzen dira tartean, eta guk lau

Nafarroako Gobernuak Bardeei buruz egin zuen txostena jarri nahi dugu martxan. Bertan zehazten da nola ekoiztu behar den, utzi behar diren lurrekin zer egin... dena. Horretarako Arautegi Orokorra aldatu behar da.

eskuratuta daukagu —Zarrakastelu, Kortes, birekin, eta Azkoien—.

EGUNKARIA.— Interes handia badute, beraz, alderdi nagusiek Bardeetan.

RINCON.— Bardeek bi motako garrantzia daukate. Lehendabiziz, ekonomikoa, betidanik nekazaritza eta abeltzantza alde honen oinarriak izan baitira. Garrantzi hori galtzen ari da franko, dauden arazoak direla eta. Orduan, garrantzi politikoa da nabarmenena gaur egun. 22 herri, bi ibar eta monastegi bat daude bertan, eta Erribera osoan gero eta interes handiagoa sortzen ari da Bardeak berregituratu behar deneko ideia. PSOEk Tuteran izan dituen arazoek eta UPNren barruan Gaiarriren egoera personalak giro berezia sortu dute, halaber. Beraz, batzurrean gertatuko dena alderdi bat edo bestearentzako irabazpena edo galera izango da. Nolabait esateko, hauteskondeei begira zein den lehena eta zein bigarrena zehaztuko du. Gainera, Gaiarriren etorkizun politikoa erabaki honetan datza. Hortik garrantzia.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

